# GOBERNU BATZARRA

**2015. 03.18**

| | |
|---|---|
| **Alkatea:**<br>**Ibai Iriarte San Vicente**<br>**Zinegotziak:**<br>**Lore Agirre Zipitria**<br>**Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez.**<br>**Idazkaria:**<br>**Jose Luis Unanue Ugalde**<br>**Kontuhartzailetzako Teknikaria:**<br>**Paulino Alonso Eraso** | **Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko martxoaren hemezortzian, goizeko 9:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.**<br>**1.- Aurreko akta onartzea.**<br>**2.- Bedaioko Abaetxe Etxean sendotze eta lurreztatze obrak egiteko kontratuaren 1. ziurtagiria (07/2015 faktura).**<br>**3.- Tolosako Udala eta Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.M., sozietatearen arteko hitzarmena.**<br>**4.-Tolosako Udala eta Tolosa Komunikabideak, S.L., sozietatearen arteko hitzarmena.**<br>**5.-Ibilgailuen Zerga. C.T.A.ren eskaera.**<br>**6.-Ibilgailuen zerga. M.S.A.ren eskaera.**<br>**7.-Ibilgailuen zerga. O.R.G.ren eskaera.**<br>**8.- 4/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.** |

**1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko martxoaren 13an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

**2.- Bedaioko Abaetxe Etxean sendotze eta lurreztatze obrak egiteko kontratuaren 1. ziurtagiria (07/2015 faktura).**

Bi mila eta hamabosteko urtarrilaren 30n, Construcciones Francisco Aierbe, S.l., enpresari esleitu zitzaion Bedaioko Abaetxe Etxean sendotze eta lurreztatze obran proiektua , 259.548,61€ (BEZa barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Bi mila eta hamabosteko martxoaren 5ean, obra zuzendaritzak aurkeztu du 1. ziurtagiria 77.504,17 €-koa.

Hortaz, ziurtagiri hau aztertuta eta kontuan izanik Udal teknikoak oniritzia eman diola, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- Onartzea Tolosako N-Iaren Ipar lotura biribilgune bat eraikitzeko 1. ziurtagiria (fak zkia: 7/2015), 77.504,17€koa (BEZa barne).

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Construcciones Francisco Aierbe, S.l., enpresari eta Kontuhartailetzari.

**3.- Tolosako Udala eta Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.M., sozietatearen arteko hitzarmena.**

Tolosako Udalak, euskararen normalizazioa lortzeko, azken hiru hamarkadetan berariazko politikak landu eta egikaritu ditu Tolosan, eta politika horiek gizartetik bertatik sortutako ekimenekin eta beste erakunde publikoetatik landutako egitasmoekin uztatzen ahalegindu da.

Azken bi hamarkadotan tokiko komunikabideen esparrua izan da euskarak irabazi duen espazioetako bat.

Era berean, esan behar da euskaraz ari den hedabideak hizkuntzak dituen mugak dituela. Hain zuzen ere, euskara ez dago egoera normalean; eta, ondorioz, nekez lehia daitezke euskarazko hedabideak hizkuntza indartsuagokoekin, pareko baldintzarik gabe.

Hortaz, ezin da euskarazko hedabide baten biziraupena jarri erabateko auto-finantziazioaren baldintzapean. Halaber, onartuta dago gizartean, galdutako oreka ez dela berreskuratzen berdintasuna erabilita.

Aurreko paragrafoan aipatutako izpiritua kontuan harturik, Tolosako Udalak hasiera-hasieratik diruz lagundu ditu Tolosaldeko euskarazko tokiko komunikabideak, idatzizkoak eta ikus-entzunezkoak. Ezinbesteko tresna bezala ikusi ditu bai euskararen normalizazioa indartzeko baita herritarrei tokiko informazio multimedia eskaintzeko ere. Are gehiago, legegintzaldi honen hasieran, eskualdeko beste udalekin batera, orduan existitzen ziren lau proiektu komunikatiboak elkar lanera eta konbergentziara bultzatzeko ekimen bat abiatu zuen.

Konbergentziarako prozesu horren ondorioz 2011n lau proiektu komunikatibo zirenak bi dira 2015ean: TKT komunikazio-plataforma multimedia papera, internet eta irratia jorratzen dituena *Ataria* markarekin eta Tolosa Komunikabideak, 28 kanala markarekin, bereziki telebista egiten duena. Bestalde, 2014ko azaroaren 26an bi proiektu horiek elkarlan operatiborako hitzarmen bat sinatu zuten sinergiak indartzeko eta baliabideak elkarbanatzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, Tolosako Udalak, 2015eko otsailaren 24, Osoko Bilkuran, erabaki zuen hiru urterako hitzarmena egitea diruz laguntzeko *Ataria* Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.M., honako era honetan:

2015ean 78.000 €-ko gastua onartzea 0900 480.01.33510 diru-partidatik; 2016an, 84.000 €-ko kreditu-konpromisoa, eta 2017an, 90.000 €-koa.

Ondorioz, aintzat harturik aurrekari guztiak eta 2015eko otsailaren 24an Osoko Bilkuran hartutako erabakia, Gobernu Batzarrak, aho batez eta Alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU:**

**LEHENA.-** Udalaren eta Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.M., sozietatearen arteko hitzarmena onartzea, xedapen hauen arabera:

1.- Onartzea Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.rentzat 78.000 €-ko gastua 0900 480.01.33510 diru-partidatik, Udalak 2015 urtean diru laguntza gisara eman diezaion.

2.- Onartzea 2015-2017 urte bitarteko hitzarmena Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.ren eta Tolosako Udalaren artean, euskararen erabilera normalizatzeko lanak bideratzeko elkarrekin hedabideen alorrean.

**BIGARRENA.-** Ahalmena ematea alkateari sinatzeko aipameneko hitzarmena Udalaren izenean.

**HIRUGARRENA.-** Erabakiaren berri ematea interesdunari, Kontuhartzailetzari eta Euskara Zerbitzuari.

**4.- Tolosako Udala eta Tolosa Komunikabideak, S.L., sozietatearen arteko hitzarmena.**

Tolosako Udalak, euskararen normalizazioa lortzeko, azken hiru hamarkadetan berariazko politikak landu eta egikaritu ditu Tolosan, eta politika horiek gizartetik bertatik sortutako ekimenekin eta beste erakunde publikoetatik landutako egitasmoekin uztatzen ahalegindu da.

Azken bi hamarkadotan tokiko komunikabideen esparrua izan da euskarak irabazi duen espazioetako bat.

Era berean, esan behar da euskaraz ari den hedabideak hizkuntzak dituen mugak dituela. Hain zuzen ere, euskara ez dago egoera normalean; eta, ondorioz, nekez lehia daitezke euskarazko hedabideak hizkuntza indartsuagokoekin, pareko baldintzarik gabe.

Hortaz, ezin da euskarazko hedabide baten biziraupena jarri erabateko auto-finantziazioaren baldintzapean. Halaber, onartuta dago gizartean, galdutako oreka ez dela berreskuratzen berdintasuna erabilita.

Aurreko paragrafoan aipatutako izpiritua kontuan harturik, Tolosako Udalak hasiera-hasieratik diruz lagundu ditu Tolosaldeko euskarazko tokiko komunikabideak, idatzizkoak eta ikus-entzunezkoak. Ezinbesteko tresna bezala ikusi ditu bai euskararen normalizazioa indartzeko baita herritarrei tokiko informazio multimedia eskaintzeko ere. Are gehiago, legegintzaldi honen hasieran, eskualdeko beste udalekin batera, orduan existitzen ziren lau proiektu komunikatiboak elkar lanera eta konbergentziara bultzatzeko ekimen bat abiatu zuen.

Konbergentziarako prozesu horren ondorioz 2011n lau proiektu komunikatibo zirenak bi dira 2015ean: TKT komunikazio-plataforma multimedia papera, internet eta irratia jorratzen

dituena *Ataria* markarekin eta Tolosa Komunikabideak, *28 kanala* markarekin, bereziki telebista egiten duena. Bestalde, 2014ko azaroaren 26an bi proiektu horiek elkarlan operatiborako hitzarmen bat sinatu zuten sinergiak indartzeko eta baliabideak elkarbanatzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, Tolosako Udalak, 2015eko otsailaren 24, Osoko Bilkuran, erabaki zuen hiru urterako hitzarmena egitea diruz laguntzeko *28 Kanala* Tolosa Komunikabideak, S.L., honako era honetan:

2015ean 36.000 €-ko gastua onartzea 0900 480.01.33510 diru-partidatik. Halaber, 2016an eta 2017an 36.000na €-ko kreditu-konpromisoa esleitzea.

Ondorioz, aintzat harturik aurrekari guztiak eta 2015eko otsailaren 24an Osoko Bilkuran hartutako erabakia kontuan izanik, Gobernu Batzarrak, aho batez eta Alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU:**

**LEHENA.-** Udalaren eta Tolosa Komunikabideak, S.L., sozietatearen arteko hitzarmena onartzea, xedapen hauen arabera:

1.- Onartzea 36.000 €-ko gastua Tolosa Komunikabideak S.L.rentzat 0900 480.01.33510 diru-partidatik, Udalak 2015 urtean diru laguntza gisara eman diezaion.

2.- Onartzea 2015-2017 urte arteko hitzarmena Tolosa Komunikazio Taldea S.L.ren eta Tolosako Udalaren artean, euskararen erabilera normalizatzeko lanak bideratzeko elkarrekin hedabideen alorrean.

**BIGARRENA.-** Ahalmena ematea alkateari aipameneko hitzarmena sinatzeko Udalaren izenean.

**HIRUGARRENA.-** Erabakiaren berri ematea interesdunari, Kontuhartzailetzari eta Euskara Zerbitzuari.

**5.- Ibilgailuen zerga. C.T.A.en eskaera.**

2015ko martxoaren 11ean, **C.T.A.**ek eskatu du Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena 1204-FZS ibilgailuan, minusbaliotasunagatik.

Aintzat hartuta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren ekainaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua, eta zergaren kuoten Ordenantza fiskal arautzailea, eskaerak eskatutako baldintza betetzen ditu, baina epez kanpo egin da (epea otsailaren 15ean bukatzen

**5.-Impuesto de vehículos. Solicitud de C.T.A.**

Con fecha 11 de marzo de 2015, **C.T.A.** ha solicitado la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo 1204-FZS, por motivo de minusvalía.

Teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, y la Ordenanza Fiscal Reguladora de las cuotas del Impuesto, la solicitud cumple con los requisitos exigidos, pero se ha realizado fuera del

zen).

plazo establecido (el plazo finalizaba el día 15 de febrero).

Hortaz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**ERABAKI DU**

**ACUERDA**

**LEHENA.-** Adierazitakoa aintzat hartuta, **C.T.A.**ren izenean matrikulatutako 1204-FZS ibilgailuari 2015 urterako Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena ez ematea.

**PRIMERO.-** Denegar la exención del Impuesto sobre vehículos al vehículo 1204-FZS el año 2015, matriculado a nombre de **C.T.A.**, en base a lo expuesto en la parte expositiva del presente acuerdo.

**BIGARRENA.**-Salbuespena 2016ko ekitalditik aurrera ematea.

**SEGUNDO.-** Conceder la exención partir del período impositivo del año 2016.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta interesatuari.

**TERCERO.-** Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a Intervención y al interesado

**6.-Ibilgailuen zerga. M. S. A.en eskaera.**

**6.- Impuesto de vehículos. Solicitud de M. S. A.**

2015ko martxoaren 11ean, M. S. A.ek eskatu du Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena 6611-HYX ibilgailuan, minusbaliotasunagatik.

Con fecha 11 de marzo de 2015, M. S. A. ha solicitado la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo 6611-HYX, por motivo de minusvalía.

Aintzat hartuta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren ekainaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua, eta zergaren kuoten Ordenantza fiskal arautzailea, eskaerak eskatutako baldintza betetzen ditu, baina epez kanpo egin da (epea otsailaren 15ean bukatzen zen).

Teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, y la Ordenanza Fiscal Reguladora de las cuotas del Impuesto, la solicitud cumple con los requisitos exigidos, pero se ha realizado fuera del plazo establecido (el plazo finalizaba el día 15 de febrero).

Hortaz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**ERABAKI DU**

**ACUERDA**

**LEHENA.-** Adierazitakoa aintzat hartuta, M.S.A..ren izenean matrikulatutako 6611-HYX ibilgailuari

**PRIMERO.-** Denegar la exención del Impuesto sobre vehículos al vehículo 6611-HYX el año 2015, matriculado a

| | |
|---|---|
| 2015 urterako Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena ez ematea. | nombre de M.S.A., en base a lo expuesto en la parte expositiva del presente acuerdo. |
| **<u>BIGARRENA</u>.**-Salbuespena 2016ko ekitalditik aurrera ematea. | **<u>SEGUNDO.</u>-** Conceder la exención partir del período impositivo del año 2016. |
| **<u>HIRUGARRENA</u>.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta interesatuari. | **<u>TERCERO</u>.-** Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a Intervención y al interesado. |

| | |
|---|---|
| **<u>7.- Ibilgailuen zerga. O. R. G.nen eskaera.</u>** | **<u>7.-Impuesto de vehículos. Solicitud de O. R. G.</u>** |
| 2015ko martxoaren 11ean, <u>O. R. G.</u>ek eskatu du Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren %50eko hobaria SE-0754-AZ ibilgailuan, 25 urte baino gehiago edukitzeagatik. | Con fecha 11 de marzo de 2015, <u>O. R. G.</u> ha solicitado la bonificación del 50 % del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo SE-0754-AZ, por tener más de 25 años. |
| Aintzat hartuta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren ekainaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua, eta zergaren kuoten Ordenantza fiskal arautzailea, eskaerak eskatutako baldintza betetzen ditu, baina epez kanpo egin da (epea otsailaren 15ean bukatzen zen). Hortaz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta, | Teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, y la Ordenanza Fiscal Reguladora de las cuotas del Impuesto, la solicitud cumple con los requisitos exigidos, pero se ha realizado fuera del plazo establecido (el plazo finalizaba el día 15 de febrero). Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía, |
| **ERABAKI DU** | **ACUERDA** |
| **<u>LEHENA</u>**.- Adierazitakoa aintzat hartuta, O.R.G.ren izenean matrikulatutako SE-0754-AZ ibilgailuari 2015 urterako %50eko hobaria ez onartzea Ibilgailuen gaineko Zergaren kuotan. | **<u>PRIMERO</u>**.- Denegar la bonificación del 50% de la cuota del Impuesto sobre vehículos al vehículo SE-0754-AZ el año 2015, matriculado a nombre de O.R.G**.**, en base a lo expuesto en la parte expositiva del presente acuerdo. |
| **<u>BIGARRENA</u>**.-2015. Urtean 25 urte beteko dituenez, hobaria 2016ko ekitalditik aurrera aplikatzea. | **<u>SEGUNDO.-</u>**Al cumplir 25 años a lo largo del año 2015, reconocer la bonificación con efectos a partir del período impositivo del año 2016. |
| **<u>HIRUGARRENA</u>**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta | **<u>TERCERO</u>**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a Intervención y al |

| | |
|---|---|
| interesatuari. | interesado. |

**8.- 4/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.**

Kontuhartzailetzak **4/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **110.653,40** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

**LEHENA.-** 4/2015 faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailetzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:15etan.**

**ALKATEA** **IDAZKARIA**